

Euskara +

Emaitza balio erantsia zure negozioari

rebozados
lenguaditos
irri-arrautzetatuak
mihiarrain txo



Euskara Pil-Pilean!

Menua euskaratu klik batean!

Menu bihurgailua

Lau urte daramatza Donostiako Euskararen Udal Patronatuak, merkatari.net webgunearen bitartez, jaki eta menuen euskaratze zerbitzua ahalbidetzen. Dohainik eskaintzen dizugun zerbitzu erraz eta bat-bateko honi esker, makina bat izan dira euren menu eta kartak euskaratu dituzten taberna eta jatetxeak.

Taberna eta jatetxeetako menu eta kartak euskarara ekartzen laguntzen dituen bat-bateko bihurgailu honek zure negozioari balio erantsi nabarmena ematen lagunduko dizu. Donostiako euskaldunen kopurua gorantz egitearekin bat, hizkuntzarekiko sentsibilitatea areagotu egin da nabarmen eta bezeroak eskertu egiten du euskararen presentzia eta erabilera denda eta ostalaritzan. Euskarak zure zerbitzua hobetzen lagunduko dizu, gehitu egiten du, ez du ezer kentzen.

Eskura jartzen dizugun tresna hau ez da itzultzaile automatiko orokor bat. Menu eta jaki aukera ugaria euskarara bihurtzen duen tresna da. Zerbait landuagoa edo zure negozioarekin zerikusia duen beste itzulpen zerbitzurik behar izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan eta Euskararen Udal Patronatuko teknikariek atseginez lagunduko dizute. Erabiltzaile eta adituen laguntzari esker, euskarazko jaki eta menu kopurua etengabe handitzen ari gara. Erabiltzera anima zaitez eta helarazi edozein iradokizun.


Menua euskaratu klik batean!



Merkatari.net atariko menu bihurgailuan sartu.



Itzuli beharreko platerren izenak idatzi.





Eta klik batez emaitzak eskuratuko dituzu!

Bihurgailuaren adibide onak

Euskararen erabilera zabaltzen ari den heinean, establezimenduek beren jarduera eta izena iragartzeko erabiltzen dituzten euskarrietan ere euskararen presentzia orokortzen ari da. Negozio mota guztietan, ia ezinbestekoa da euskaraz ere iragarri eta aditzera ematea. Kontuan izan euskararen hitzezko eta idatzizko erabilerak zure establezimendua jantzi eta erakargarriagoa egiten duela.

DONOSTIAKO EUSKARAREN UDAL PATRONATUA
Konstituzio plaza 2, 20.003 Donostia
Tel. 943483750 – Faxa: 943483765
E-mail: udala_euskara@donostia.org
www.euskaraz.net – www.merkatari.net



Ez zaitez atzean geratu!

Autodiagnostikoa

Galdeketa baten bitartez, modu erraz eta azkar batean zure establezimenduari euskararen erabilpen maila ezagutzeko aukera izango duzu. Eta autodiagnostiko honen ostean, gune berean topatuko duzu, Donostiako Euskararen Udal Patronatuak eskaintzen dizkizun aukerak eta zerbitzuak euskararen erabileran hobetu eta aurrera egin dezazun.

Autodiagnostikoa Merkatari.net atarian aurkituko duzu.



Euskera +

Añade valor a tu negocio

rebozados
lenguaditos
mihiarrain txoko
irin-arrautzetatuak



¡El Euskera al Pil-Pil!

¡Traduce menús al euskera en un clic!

Traductor de Menús

El Patronato Municipal de Euskera lleva cuatro años ofreciendo la posibilidad de traducir al euskera platos y menús a través del servicio de la web merkataari.net. Gracias a este servicio gratuito, son muchos los bares y restaurantes que han traducido al euskera sus menús y cartas, fácilmente y en el momento.

Este programa que ayuda a traducir al euskera menús y cartas de bares y restaurantes al momento te da la posibilidad de añadir valor a tu negocio. El número de euskaldunes ha crecido en Donostia-San Sebastián y con ello la sensibilidad hacia la lengua es marcadamente mayor, de modo que el cliente agradece la presencia y el uso del euskera en el comercio y la hostelería. El euskera te ayudará a mejorar tu servicio, suma, no resta nada.

No obstante, esta herramienta que ponemos a tu alcance no es un traductor automático general. Se trata de una herramienta que convierte al euskera una variada oferta de menús y platos. Si precisas de algo más elaborado o si necesitas algún servicio de traducción relacionado con tu negocio, ponte en contacto con nosotros y los técnicos y técnicas del Patronato Municipal de Euskera te ayudaran gustosamente. Gracias al apoyo de las personas usuarias y expertas estamos aumentando el número de platos y menús en euskera continuamente. Anímate a utilizarlo y envíanos cualquier sugerencia.

¡Traduce menús al euskera en un clic!




1

Entra en el traductor de la web merkataari.net



2

Escribe el nombre de los platos a traducir




3

¡Y en un clic obtendrás los resultados!

Ejemplos de uso del Traductor de Menús

En la medida en que el uso del euskera se extiende, se está también generalizando la presencia del euskera en los soportes que utilizan los establecimientos para la difusión de su actividad y de su nombre. En toda clase de negocios, es casi imprescindible anunciarse y comunicarse también en euskera. Ten en cuenta que el uso oral y escrito del euskera en tu establecimiento lo viste y lo hace más atractivo.

PATRONATO MUNICIPAL DE EUSKERA
Plaza de la Constitución 2, bajo, 20.003 Donostia-San Sebastián
Tel. 943483750 – Fax: 943483765
E-mail: udala_euskara@donostia.org
www.euskaraz.net – www.merkataari.net



¡No te quedes atrás!

Autodiagnóstico

A través de un cuestionario, de un modo fácil y rápido tendrás la oportunidad de conocer el nivel de uso del euskera de tu establecimiento. Y a continuación de dicho autodiagnóstico, encontrarás en el misma web todos los servicios que te ofrece el Patronato Municipal de Euskera de Donostia-San Sebastián para mejorar y avanzar en el uso del euskera.

El Autodiagnostico lo encontrarás en la web Merkataari.net

